



**GIPUZKOA
MERKATARIAK
FEDERACIÓN**

ZAHARREAN ELKARTEAREN 2023KO ZOZKETAREN LEGE-OINARRIAK

DONOSTIAKO ALDE ZAHARREKO MERKATARIEN ELKARTEAK, “ZAHARREAN” ELKARTEAK, G-20058046 zenbakidun IFK duenak, erabaki du zozketa bat antolatzea, herritarrek zona horretako tokiko komertzioetan eros dezaten sustatzeko. Hauexek dira zozketaren OINARRIAK:

LEHENENGOA: Promozioaren xedea eta sariak

ZAHARREAN elkarteko kide diren komertzioak ezagutzera emateko eta tokiko merkataritza kate eta saltoki handien aurrean posizionatzeko helburuz, zozketa bat antolatu dugu, Alde Zaharreko tokiko komertzioetan erosketak egiten dituzten bezeroen leialtasuna lortzeko eta, era horretan, Elkartea bera eta elkarteko kide diren komertzioak ezagutarazteko asmoz. Horretarako, Zaharrean elkarteko kide diren komertzioetako batzuek emandako produktuz, opari-balez eta zerbitzu-balez osatutako saski bat zozkatuko dugu.

BIGARRENA: Parte-hartzaileak

18 urtetik gorako pertsonak parte hartu ahal izango dute, ondorengo baldintzak betetzen badituzte:

- “Zaharrean” elkarteko kide diren establezimenduetan erostea eta saskirako produktu, bale edo zerbitzuren bat ematen duten parte-hartzaileak izatea. Erosketa bakoitzeko txartel bat emango da.

HIRUGARRENA: Iraupen-aldia

2023ko urriaren 8tik 19ra, edo txartelak agortzen diren arte.

LAUGARRENA: Zozketa

2023ko urriaren 21ean egingo da zozketa zuzenean, Trinitate Plazan, Elkartek berak antolatutako areto-futboleko txapelketa amaitzen denean, 21:30 aldera.

2023ko urriaren 23an Instagram bidez (@zaharrea) jakinaraziko da zein izan den zenbaki irabazlea. Irabazleak 10 eguneko epea izango du saridun txartela aurkezteko. Denbora-tarte horretan inork txartela aurkezten ez badu, beste zozketa bat egingo da, eta behin eta berriro irabazle bat agertzen den arte.

BOSGARRENA: Saria

Elkarteko kide diren ondorengo komertzioek emandako ondorengo produktuz, opa ri-balez eta zerbitzu-balez osatutako saskia izango da saria:

1. KUTIXIK	URDAIAZPIKO-PAKETE BAT
2. AITOR LASA	ONDDO-POTOA
3. MERCERÍA MAITE	KAMISETA
4. ENERITZ ESTETIKA	DUTXARAKO ESNEA
5. SOUL COOL AND CHIC	ERLOJUA
6. NOVENTA GRADOS	EGUZKITAKO BETAURREKOAK
7. SOLBES	3 BOTILA TXAKOLIN
8. PONPOXITA	POLTSA
9. JOYERÍA BIKONDO	ESKUMUTURREKOA
10. EIDER MARTIN	GELA+APARRA
11. BRETXAOLIVA	BOTILA BAT OLIO
12. IÑAKI VEGA	URDAIAZPIKO-ZORROA
13. HOTEI BOUTIQUE	GALTZAK
14. GARRARTE	TXOKOLATE-SORTA
15. MATILLA	NEZESERRA+PRODUKTUAK
16. COCO	KOILAREA+BETAURREKOAK
17. DIÁBOLO	GALTZERDIK
18. ALMACENES LA BRETXA	TXAPELA
19. EL RATÓN DE GETARIA	BI GALTZERDI-KAXA

20. IDOIA ODRIOZOLA	GOMAZKO ABARKAK
21. ESKULANEN ETXEA	PUNTUA EGITEKO KITA
22. VINTAGE CLOSETS	KAMISETA
23. OLAIA, SALUD Y BELLEZA	KAMISETA ETA <i>TOTE BAG</i> POLTSA
24. DECOTEK	2 KUXIN
25. TONI PONS	ALPARGATAK
26. DUCK STORE	AHATE HANDIA + <i>TOTE BAG</i> POLTSA
27. CAMISERÍA OLANO	ALKANDORA
28. ENBATA	ANORAK HORIA
29. BAZAR BRITT	KOILAREA ETA BELARRITAKOAK
30. UZTARO	PIPERMINAK, ATUNA ETA ZAINZURIAK
31. MAIATZA	BI LAGUNENTZAKO 20 €-KO GOSARIA
32. RUCAL	ILE-LEHORGAILUA
33. ELKAR	20 €-KO BALEA
34. TRAFFIC	BIDAI-POLTSA
35. URQUIA	BARRUKO ELASTIKOA
36. MICHAEL ´S	LARRUZKO POLTSA
37. SEMILLAS URETA	PACK BOQUERA
38. GUANTES VARADE	LARRUZKO ESKULARRUAK
39. POLITA	PONTXOA
40. HARRESI ETXE-AGENTZIA	TXOKOLATEA
41. SAOMI	KAMISETA
42. ZARZA	ZAPIA
43. REGALOS ITZIAR	ZINTZILIKARIOA: EGUZKILOREA
44. PUKAS SURF	SOFTBOARDS BLACK AND WHITE SURF-OHOLA
45. ADMINISTRACIÓN LOTERÍA Nº 8	GABONETAKO LOTERIA (20 €)
46. IKKO	EGUZKITAKO BETAURREKOAK
47. SOMBRERERÍA LECLERCQ	BISERA
48. PASTELERÍA OTAEGI	KAXA BAT PASTA
49. PIEZA CON PIEZA	PUZZLEA

50. MUEBLES ARMINZA	BUDAREN IRUDIA
51. BOLSOS IDOIA	ATERKIA
52. BIZKOR	BI ARGAZKI-ALBUM ETA ARGAZKI-MARKOA
53. FIORI	JERTSEA
54. LA OVEJA LATXA	FOIE-LOTEA
55. LA SEVILLANA	POTE BAT ATUN
56. VINOS MARTINEZ	BOTILA BAT PATXARAN
57. ROOM278	TOTE BAG POLTSA
58. PYC	BELARRITAKOAK
59. BOUTIQUE ESTHER	ZAPIA
60. KOLOREKA	MARGOLANA
61. CABO ROJO	EURITARAKO BISERA
62. JOYERÍA LUIS RUIZ AGUIRRE	ZINTZILIKARIOA
63. SUI GENERIS	KIROL-JERTSEA
64. ALBOKA	2 ERRALDOI
65. ZAPORE JAI	SALTXITXOI- ETA TXORIZO-PAKETEA, ATUN-TRONTZOA, PATEA TXAKOLIN ERARA
66. GANDARIAS JATETXEA	BI LAGUNENTZAKO AFARIA (100 €)
67. FEDERIKO TABERNA	BI BOTILA ARDO
68. PELUQUERÍA NAIZ	ILERAKO PRODUKTUZ OSATUTAKO PACKA
69. ZUNTZ	MOTXILA
70. AYESTARAN BITXI-DENDA	ERLOJUA
71. IKATZ OKINDEGIA	PASTEL BANDEJA BAT
72. CASINO KURSAAL	PACK SORPRESA
73. JUANTXO TABERNA	2 OTARTEKO ETA SAGARDO BOTILLA
74. IRULEA	KOLONIA
75. CAFES PANCHITO	KAFEA ETA KAPSULAK
76. PASTELERÍA OIARTZUN	TRUFA KAXA

SEIGARRENA: Irabazleekin harremanetan jartzea

Behin zozketa egin ondoren, Donostiako Alde Zaharreko Merkatarien “Zaharrea” Elkarteak irabazlearen izena argitaratuko du, eta hurrengo egunetan emango dio saskia irabazleari.

Irabazleari saria ematen zaion unearen argazkia aterako dute, sare sozialetan argitaratzeko.

ZAZPIGARRENA: Sariak jasotzeko eguna, lekua eta epemuga

Instagrameko kontuan (@zaharrea) argitaratuko da zenbaki irabazlea, eta sare sozial horren bitartez jarri beharko da harremanetan irabazlea, eta zenbaki irabazlea duen txartelaren argazkia bidali beharko du.

Saria jaso ahal izateko, argazkia ateratzeko baimena eman beharko du irabazleak, bere irudi- eskubideak lagaz eta argazkia komunikabideetan eta Donostiako Alde Zaharreko Merkatarien “Zaharrea” Elkarteak kudeatzen dituen sare sozialetan argitaratzeko baimena emanaz.

Behin irabazlearekin harremanetan jarri ondoren, ZAHARREAN elkartearen webgunean (www.zaharrea.eus) eta GIPUZKOA MERKATARIAK FEDERAZIOARENEAN (www.gipuzkoamerkataria.com) argitaratu ahal izango da irabazlearen izena.

Ondore horietarako, irabazleak haren izen-abizenak webgune bietan eta Instagrameko kontuetan argitaratzeko baimena ematen du.

ZORTZIGARRENA: Trukea egiteko baldintzak

- Sariak ezingo dira trukatu duten diru-balioaren truke, eta ezin izango da egin produktuen inolako aldaketarik.
- Ezin zaie beste deskontu, sari edo erosketa-bale batzuei aplikatu. Ezin zaie beste eskaintza edo promozio batzuei gehitu.
- Establezimendu bakoitzak opari-baleetan eta zerbitzu-baleetan ezarritako berariazko baldintzak aplikatuko dira.
- Zaharrea elkarteak ez da izango erosketen eta baleen emaitzen erantzule; emaitza horiek bezeroaren eta establezimenduaren arteko harremanari bakarrik dagozkio.

BEDERATZIGARRENA: Araudia onartzea

Jarduera honetan parte hartzeak oinarri hauek onartzea dakar berarekin.

www.zaharrea.eus webgunean kontsulta ditzakete bezeroek zozketaren oinarriak.

HAMARGARRENA: Datuen babesari buruzko oinarrizko informazioa

GIPUZKOAKO MERKATARITZA FEDERAZIOAK, tratamenduaren arduraduna den aldetik, jakinarazten dizu zure irudia jasoko dela zozketaren irabazlearen irudia ezagutzera emateko, <https://gipuzkoamerkatariak.com/webgunean> argitaratuta.

Edozein pertsonak du eskubidea datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, tratamendua mugatzeko, datuen aurka egiteko edo haien eramangarritasunerako eskubidea eskatzeko, gure bulegoetako helbidera idatziz, edo federacion@fmg.es helbidera mezu elektronikoko bat bidaliz, erabili nahi duen eskubidea adieraziz. Informazio gehigarria federacion@fmg.es helbidean eska dezakezu